

Ebanjelioa eta espetxea

JOSE ANTONIO PAGOLA*

I. BAKEZKOAK EGITEAREN ZERBITZUA

1. Bakezkoak egitearen kristau ikuspegia

San Pauloren hitz hauetatik abiatu behar du bakezkoak egiteari buruzko gogoeta orok: *“Hau guztia Jainkoarengandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu eta adiskidetzeko zerbitzua gure esku utzi du. Bai, Jainkoa da Kristoren bitartez mundua berekin adiskidetu duena, gizon-emakumei bekatuen kontuak eskatu gabe, eta adiskidetzearren mezu hau gure esku utzi duena. Kristoren mandatari gara, beraz, eta Jainkoak berak gure bitartez erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: egitzazue bakeak Jainkoarekin”* (2 Ko 5, 18-20).

1.1. Jainkoaren ekimen adiskidegilea

Jainkoaren aurpegi berria, ordu arte ezezaguna, agertzen zaigu Kristo-

rengan. Jainkoa ez da ez zigortzaile ez mendekati, adiskidegile baizik. Ez du gizakia etengabeko gatazkan, bere kontraesan eta bidegabekerien morrontzan bizitzerik nahi. Horregatik, Jainkoak ez dio gaizkiari mendekuz erantzun, ezta erru-ordain eta zigorrekin ere. Bera izan da *“gaitza ongiatz menperatzen”* (Erm 12,21) lehenengoa.

Jainkoaren ekimen adiskidegile honen sorreran baldintzarik gabeko maitasuna bakarrik dago. Jainkoak ez du alde aurreko ezer eskatzen baldintza edo eskakizuntzat. Gizakiaren alde-tik etsaigoa eta arbuioa besterik ez dagoenean eskaintzen du bere adiskidetasuna. *“Etsai ginelarik, Jainkoak bere Semearen heriotzari esker berekin baketu gintuen”* (Erm 5, 10). *“Okerrak kontuan hartzen ez dituen”* baldintzarik gabeko maitasunak adiskidetzen du gizakia Jainkoarekin. Gizon-emakumeek arbuiatzen badute ere, Jainkoak ez ditu arbuiatzen. Beraiengatik gurtziltzatua, ez ditu desegiten. Erasoari

* Teologoa, Donostiako Elizbarrutia. 1999ko azaroan, Espetxe Pastoraltzaren VI. Jardunaldian Donostiako Bikario Nagusi zela egin zuen hitzalditik.

barkamenarekin erantzuten dio Jainkoak eta bere odola isuriaz, ez gizon-emakumeena, adiskidetzen gaitu. Kristoren gurutzea da, beraz, Jainkoak eskainitako adiskidetasunaren ezaugarriarik handiena: *“Kristo, gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna”* (Erm 5,8).

1.2. Barkamenaren eta norbere eraberritzearen bidez bidegabekeriaren ezabapena

Adiskidetze ekimenak ez du Jainkoari gizon-emakumeen artean egiten diren bekatu eta bidegabekeriengatik axolarik ez zaionik eta kaltetuekin ahazten denik adierazten. Alderantziz, zuzengabekeriak desagerraraziz bakarrik adiskide daiteke Jainko santuarekin. *“Munduko bekatua kentzera”* (Jn 1,29) etorri da Kristo. Adiskidetzea ez da behin ere gaizkiari iskintxo egitea edo zuzengabekeriaren aurrean axolarik ez izatea, *“gizaki berria”* (Ef 2,15) sortzea baizik. *“Jesusen egiaren arabera biziera zuzena eta santua eramateko Jainkoak sortua”* (Ef 4,24) baita.

Bide berritik abiatzen da, ordea, adiskidetzea zuzengabekeria suntsitzearantz: Jainkoaren baldintzarik gabeko barkamena eta pertsonaren bihotz berritzea. Sorreran, *“zazpi milatan zazpi aldiz”* (Jn 18,22) barkatzen duen Jainkoaren neurrigabeko barkamena dago. Baina Jainkoak ez du behin ere

ezer ezartzen, ezta adiskidetzea ere. Bakoitzaren askatasuna errespetatzen du beti. Bihotz berritzera egiten digun deia da bere barkamena. Gizakiak erantzun behar dio bihotza berrituz Jainkoaren ekimen adiskidegileari. Jainko barkatzailearen eta gizaki bihotz berrituaren topo egite horretan, gainditzen da bidegabekeria.

1.3. Jainkoarekin adiskidetzea, gizon-emakumeen arteko adiskidetzearen oinarri eta eskakizun

Jainkoarekiko etsakeria deseginik, ezerez daiteke gizon-emakumeen arteko haserrea. Jainko Aitarenganako bidea zabaldua, zabalik geratzen da senidetasunerako bidea, Kristoren bidez *“bai batzuk eta bai besteok hurbil baikaitezke Aitarengana Espiritu barenengan elkaturik”* (Ef 2, 18). Jainko Aitak denok onartzen bagaitu bere barkamen adiskidegilea eskainiz, guztiok elkar onar dezakegu senide gisa elkarri barkamena eskainiz. Kristau uste honetatik, gizon-emakumeen arteko etsaitasuna errotik gainditua dela uste du San Paulok eta, bereziki, Israelgo herriaren eta jentil herriaren artekoa. *“Berak bat egin ditu bi herriak, bereizten zituen etsaigoaren hesia deseginenez...Bi herriekin gizadi berri bakarra sortu du bere baitan, bakeak eginez”* (Ef 2, 14-15).

Jainkoarekin adiskidetzeak ez du gizon-emakumeen adiskidetasuna bi-

deragarri bakarrik egiten, sakatu egiten du adiskidetzera. Ezin daiteke Jainkoarekin seme-alaba adiskidetuak bezala bizi, neba-arreba adiskidetuak bezala bizitzen saiatu gabe. Zure senidearekin ez bazaude adiskide, “*utzi oparia han, aldare aurrean, eta zoaz lehenbizi senidearekin bakeak egitera; itzuli gero zeure oparia eskaintzera*” (Mt 5, 23-24). Elkarri barkatuz eta bakoitza bihotz berrituz gizarte adiskidetuagoaren alde lan egitea eskatzen du Jainkoarekin adiskidetzeak.

2. Zigor legeria

Epaitu eta zigortu ondoren, gaizkile zigortuak ez du bere inguruan giro adiskidegilerik sumatzen. Alderantziz, gizartea ez da, espetxean, presoarekin adiskidetzen ari, bere makurrak egozten baizik. Zuzenbide Penalaren antolamendua ere, bista-koa denez, ez da barkamen jarrerak eragina, ez du gaiztaginaren adiskidetzea bilatzen zuzenean, ez bere buruarekin, ez kaltetuarekin, ez gizartearekin eta, are gutxiago Jainkoarekin.

2.1. Zigorraren ezarpena

Zigorraren helburuak kontuan hartzerakoan, kalteen ordainaz, gehiago kalterik ez egiteaz eta, oro har, gizarte-

an okerrak saihesteaz mintzatu ohi da².

Kalte-ordainen teoriaren arabera, gaizkileak bere errua pairatzea eta kalteak ordaintzea da zigorraren helburua, gizartean sor ditzakeen beste eragin batzuez landa. Teoria horrek sustrai sakonak izan baditu ere, Zuzenbide Penalaren helburua kaltearen neurriko zigorra betetzea denik ez da uste gaur egun. Zigorraren helburua, batez ere, elkarbizitza zuzena eta baketsua bideratzea da.

Gaizkiari *aurrea hartzearen* teoriaren arabera, zigortuak etorkizunean egin ditzakeen okerrei aurrea hartzea da zigorraren helburua. Gaiztagina gizartean txertatzen eta birgizarteratzen laguntzeko duen garrantzia azpimarratzen da, orduan.

Aurrea hartze orokorraren teoriaren arabera, gizartean, ez zigortuaren aldetik bakarrik baita beste edonoren aldetik ere, egin daitezken okerrei aurrea hartzea da zigorraren helburua. Eskarmenturako eta zentzabiderako balioko duela zigorrak uste da, herritarrek gaiztakeriatik urrun daitezzen.

Zigor legerian ez da barkamen konturik eta adiskidetze helbururik sartzen, nahiz eta presoaren birgizarteratzea bilatzen duela zigorrak aitortzen den.

² Ondoren datorren guttirako, ikus J.L. ECHANO, *Perspectiva jurídico-penal del perdón*, AAVV. El perdón en la vida pública, Universidad de Deusto, 1998, 107-122.

2.2. Zigorra zor eta behar

Zigorra ezartzeaz hitz egiterakoan, zilegizkoa izan dadin, merezia ez ezik beharrezkoa ere badela gogoratzea ezinbestekoa da. Hau da, zigorra zilegizkoa da “legezko bakea” edo gizarte-ko elkarbizitza baketsua eta zuzena lortzeko kalte gutxiago egiten duen beste biderik ez denean. Zigorrak bere egitekoa bete dezan ahal duen sufrimendurik txikiena jasan arazi behar du.

Zuzenbide Penalaren presoaren ongiaz arduratzen dela gogoraraztea garrantzitsua da. Zigorrak ez du beste makurkeria batzuk saihesteko eginkizuna bakarrik, baita nahierako eta neurritz kanpoko zigorrak baztertzekoa ere. Zuzenbide Penalaren ez da bakoitzaren mende-kuaren ordezkotza zerbait, edo “begia begi truk, hortza hortzaren truk” legea gizarteak betetzea. Espetxetako zuzenbideak horregatik eragozten ditu zigorra betetzen ari direnen kontrako tratatu txarrak edo laidoak eta pertsonaren duintasunaren aurkako erasoak.

2.3. Presoaren birgizarteratzea?

Presoak kaleratutakoan egin ditzakeen okerreirei aurrea hartzeko helburua ere badenez zigorrak eta, bestalde, gaizkileari kalterik gutxien egingo dioten bideak bilatu behar direnez, normala da herrialde guztietan “presoa birgizarteratzea” lortu nahi izatea zigorlegeriaren bidez.

Askatasuna mugatua duen presoak ez dadila gizartetik are eta uzkurrago eta arrotzago bihurtu eskatzen du birgizarteratzeak. Presoaren birgizarteratzeaz gero eta fidagaitzago bihurtzen ari da jendea. “Birgizarteratzearen mitoa-ren” krisialdia ez da lorpen urriengatik bakarrik, baita funtsezko eragozpenengatik ere. Batetik, nola jaten da birgizarteratu nahia espetxearen bidez gizartetik urruntzearekin. Bestetik, presoari nahitaez ematen zaion tratamendua kanpoko da. Horrekin bakarrik nekez lortuko dira balioen irizpidean, bizitzaz duen jarreran edo bere nortasunean funtsezko aldaketak.

Horregatik, arinak edo hain larriak ez diren makurkerietan askatasuna kentzen duen zigorra baztertzeko edo murrizteko joerak ari dira gailentzen, praktikan, presoak gizartean arrotzago eta mutiriago bihurtu ez dadin.

Hala bada, epaitu eta zigortu ondoren, bakezkoak egiteko prozesua errazten ez duen barkamen sentipenetik kanpora daukan egoera juridiko eta sozialean dago presoak. Bestetik, kalte-tuen gaitzespenak eta gizartearen bazterketak adiskidetzaren aurkako sentipenera eraman dezake presoak.

3. Jesusen barkamen-harrera

Gure egunotarako ondorioak ateratze arren, Jesusen bere garaiko zigorlegeriaren aurrean zuen jarrera berre-

gin nahi izatea aldiak nahastea izango litzateke. Ez ordea Jesusek bekatariekin eta gaizkileekin zuen jarrera aztertzea, “*Jainkoa baita Kristoren bitartez mundua berekin adiskidetu duena*” (2Ko 5,19). Jesusen jarrera hark argi dezake gure zerbitzu adiskidetzaila ere.

3.1. Jesusen barkamen abegitsua

Bi pasadizotan agertzen dute ebanjelariak Jesus bekatuak barkatzen: elbarriari: “*barkatuak zaizkizu bekatuak*” (Mk 2,5) eta emakume bekatariari: “*barkatuak dituzu zeure bekatuak*” (Lk 7,48). Kontaera hauen arabera, badirudi Jesusek askespena edo absolutioa emanaz barkatzen duela. “Barkamen-askespen” hau oso garrantzitsua izanik, ez du erabakigarriena adierazten, Jesus (eta Jainkoa) epaile gisa aurkez baitezake, nahi den bezain zuzena eta errukiorra, baina nolana ere epaile. *J. Sobrinok* ohartarazten duen bezala, barkamenaren ikuspegi honetan “bekataria eta epailea, barkatua eta barkatzailea...bata bestearentzat arrotz dira³.” Jainkoa askatzen duen Epailea dela jakitea pozgarria da, baina horrekin ez zaigu Jainkoaren maitasun adiskidegileak esan nahi duen guztia oraindik erakusten.

Exegeta askok gertatukotzat jotzen ez dituzten bi pasadizo hauen barnean bada guztiek onartzen duten egiazko datu bat: Jesusek hartu egiten zituen bekatariak eta beraiekin bazkaltzen zuen (Mk 2, 15-17 = Mr 9, 10-12 = Lk 5, 29-32; Lk 15, 1-2; Lk 19, 1-10). Elkartasun guztitik teologia ofizialak baztertutako bekatari eta zerga-biltzaileekin bazkaltzeko ohitura hau Jainkoaren bizipen berria eta harrigarria eskaintzen duen parabola bizia da. Damutu eta bihotz berri zain egon gabe, Jainkoarekin egingo den azken festaren irudikapen eta aurrerapen den otorduan hartzen ditu Jesusek⁴. Barkapen-harrera honek berekin du askespena, baina barkamen-askespena baino askoz gehiago da, Jesusen (eta Jainkoaren) doako eta baldintzarik gabeko maitasuna agertzen baitu. Izan ere, bekatariaren bila ateratzen da, epaile bezala itxaron gabe⁵. Jainkoa bere barkamenaz eta errukiaz, ez bere santutasunaz eta zuzentasunaz, hurbiltzen zaiola bekatariari erakusten du barkamen-harrerak.

3.2. Barkamen-harreraren garrantzia

Askespen soila ez, baizik barkamen-harrera hau da ondorio sakonak

³ J. SOBRINO, *Pecado personal, perdón y liberación, El Principio-miseridordia, Bajar de la cruz a los pueblos crucificados* liburuan, Sal Terrae, Santander, 1992, 142.

⁴ R. AGUIRRE, *La mesa compartida. Estudios del NT desde las ciencias sociales*, Sal Terrae, Santander 1994, batez ere 58-121.

⁵ J. SOBRINO, o.c., 143.

dituen Jesusen salbamen ekinbidearen muina.

Lehenik, Jainkoa den bezala, bekatariekiko bere luze-zabaleko doakotasunean eta baldintzarik gabeko maitasunean, agertzen digu jarrera ebanjelizatzaile honek. Bekatariekin egiten dituen bazkariak zurrizko Jesusek kontatzen duen Seme galduaren (hobeto esanda, Aitaren maitasunaren) parabolan (Lk 15,1-2. 11-32) ez du bekatariairen aitortza entzuten duen, haren damua aintzakotzat hartu eta askespena ematera lerratzen den epaile gisa Jainkoa azaltzen, semearen aitorpena entzun nahi ez duen eta galdutzat zeukalako festa antolatu eta gozo hartzen duen Aita bezala baizik.

Bestetik, barkamen-harrera honek egiazko aldaketa eragiten du bekatarierengan. Bekatari dela ikusarazten dio eta bihotz berritzera deitzen. Barkamenaren onarpenak ematen dio bekatari dela aitortzeko eta erabat aldatzeko kemena. *K. Rahner*-ek zioenez, “barkatua izan denak bakarrik daki bekatari dela.” Esanguratsua da Zakeorekin gertatua. Ebanjelioaren arabera (Lk 19, 1-10), Jesusek onartu duela ohartutakoa, egindako kalteak ordaintzeko eta bere bizitza aldatzeko gogoia sumatzen du. Ebanjelioaren muinean irakaspen argi bat dago: Onbideratzea ez da Jainkoaren barkamena hartzeko baldintza, barkamenaren ondorioa baizik.

Barkamen-harrerak, gainera, gizartean gutxietsia eta baztertua izatetik libratzen du bekataria, eta galdutako duintasuna itzultzen zaio. Jainkoak onartu badu, inork ez du muzin egiteko eskubiderik. Herri santuaren kontu horri uko egiten dio betiko Jesusek, bekataria baztertzen dituen eta orbanik gabeko bizitza daramaten zintzok osatzen duten herri horri, alegia. Jesusek, bere jarreraz, baztertuen birgizarteratzea sustatzen du, Jainkoaren herriak bere sasi-santutasuna babestearren erakitako hesiak hautsiz. Horrela, “barkamen-harrerak etorkizun berria eta baikorra zabaltzen dio bekataritari, besteen aurrean gizarte-eremua zabaltzen, baita bere baitan barne-eremua ere⁶.”

Azkenik, begi bistakoa da, bekataria berritua herri santura itzultzeko zehatz bete behar zuen juduen lege sistema zalantzan jartzen du Jesusek bere jarrerarekin. Zergalariak hartzen dituen, emagalduari barkatzen edo perlesidunari askespena ematen dionean, Jainkoaren barkamena eskaintzen ari da Jesus, bekatari horiek bekatuak aitortu aurretik eta barkamena lortzeko erre-opariak eskaintzeko Tenplura inguratu beharrik gabe. Tenpluko Jainkoarenganako sarrera eragotzi arren, beti onartuko ditu Jesukristoren Jainkoak.

Aurrera joan aurretik, nahitaezkoa da galdera bat. Barkamen-askespena,

⁶ Ibidem, 145.

batez ere, penitentziaren sakramentua-
ren bidez eskaintzen du gaur egun
Elizak. Baina, non bihurtzen da sakra-
mentu barkamen-harrera? Non eskain-
tzen zaizkie bekatariei harrera seinale-
ak eta jarrerak beren bekatuak aitortu
edo damua azaldu aurretik? Ez al litza-
teke gaizkile eta presoen mundu horren
ebanjelizatzea lekurik aukerakoena
horretarako?

4. Ebanjelizatze ekintza espetxe- an bakezkoak egiteko zerbitzu- tzat

Espetxe Pastoralgintza bakezkoak
egiteko zerbitzutzat ulertzen eta gara-
tzen lagunduko diguten argibide ba-
tzuk labur ematea da, hain zuzen, nire
asmoa. Kristoren bidez mundua bera-
rekin adiskidetzen eta ez beren gaizta-
keriak egozten ari zen Jainkoak gure
esku utzi du bakezkoak egiteko zeregi-
na, hain zuzen, multzo bat gaizkiletzat
edo agiriko bekataritzat jota (asko eta
asko miseriak, bazterketak, ezjakinta-
sunak, arrotz izateak edo gaixotasunak
horretaratuak) daudenak eta gaitzespe-
na, gutxiespena eta bazterketa bakarrik
sentitzen dutenak bizi diren lekuetan.

4.1. Jainkoarekin adiskidetzea

Nire iritziz, presoari “barkamen-
harrera” eskaintzetik abiatu behar du
ekintza ebanjelizatzaileak espetxean,
eta hori izan behar du helburu erabaki-
garria ere. Beste arloetan (gaixo, fami-

lia, alden du eta abarrekin) egiten den
pastoralgintzatik ezaugarri horrek be-
rezi eta nabarmendu behar du Espetxe
Pastoralgintza. Jainkoak onartzen eta
ezeren baldintzarik gabe maitatzen
dituela jakin behar dute gizarteak
zigortu dituenek. Espetxealdiak eten-
gabe gogorarazten dizkie egindako
gaiztakeriak eta gizarteak zigortutako
gaiztaginari dagokion bezala antola-
tzen zaie bizimodua. Espetxe Pastoral-
gintzak, berriz, Jainkoaren barkamena
etengabe gogorarazten eta Jainkoak
onartzen dituen bizipena bizitzeko ere-
mia eskaintzen dien ekintza ebanjeli-
zatzailea izan behar du.

Presoa onartzen eta babesten duen
pastoralgintza izan behar du funtsean
Espetxe Pastoralgintzak. Ekimenek,
jarduerak, jokaerek, jarrerak, presoare-
kiko begirunea, hurbiltasuna, berotasu-
na, elkartasuna, adierazi behar dute.
Inolaz ere ez, epaia, zigorra, gaitzespe-
na, hoztasuna edo gutxiespena. Pertso-
nek, jarrerak, jarduerak, arazo eta
gatazken aurreko jokaerek Jainkoaren
barkamen-harrerako parabolakoak, no-
labait, Espetxe Pastoralgintzan, Jesus-
en jardueran mahaian elkarrekin egin-
dako bazkarian bezala.

Jainkoaren barkamen bizipen ho-
nek hezurramitu eta gidatu behar ditu
presoari eskaintzen zaizkion erlijio
laguntza, fede ospakizuna eta Berri
Onaren aldarrikapena. Espetxean Jain-
koaren barkamena hots egin behar da,

baina ez Jainkoaren ezaugarri askoren arteko beste bat gehiago bezala, Jainkoaren izatea bera adierazten duen ezaugarri bezala baizik. Jainkoa, epaitzen eta zigortzen duen gizartea ez bezala, barkamena da eta baldintzarik gabeko barkamena. Diren bezala maite ditu Jainkoak, bekatua aitortu aurretik eta damutzen hasi baino lehen. Bekatari den, onartua eta salbatua den bizipena kokatu behar da presoaren (kristau oro-ren) kristau bizitzaren erdigunean.

4.2. Norberarekin adiskidetzea

Barkamena hartzeak pertsonaren barrua alda dezake. Legea hausteak edo bekatuak ez dute azken hitza. Berri on hori eraman behar du espetxera ekintza ebanjelizatzaileak. Dena dela, duen izena duela, zigortu guztiak dauka etorkizun berria zabalik: bihotz berritzeko, damutzeko, galdutako duintasuna eskuratzeko, birgizarteratzeko... Ez da etsipenaren zuloan jausi behar, ezta inozokerian ere. Zaila eta neketsua izan daiteke bidea, baina beti egin daitezke duintasuna lortzeko urratsak.

Espetxeekiko Pastoralgintzak bidelagun izan behar du bakoitzaren berrikuntza bidean. Zigortua aldatzeko gai ez den espetxean, Pastoralgintzak bakoitzaren euskarri izan behar du presoak bere burua narda ez dezan, baizik zauri zaharrak senda ditzan, galdutako duintasuna berreskuratu eta bizitzaren

aurrean beste jarrera bat har dezan. Bidelagun izate hori ez da erraza. Espetxean errua baino gehiago gaixotasuna eta giza hondamena dago. Preso asko drogen menpe daude, osasunik eta maitasunik gabe, etorkizuna beltz dutela, inork behar bezala defendituko dituen segurantzirik gabe, bakarrik utziak. Egoera horretan iruzur egin, gezurra esan, ziria sartu behar dio inguratzen zaionari. Eraberritze prozesuetan nola pentsa? Baldintzarik gabeko eta doako maitasun jarrerarik gabe zail da bidelagun izaten jarraitzea.

Ez da bidelagun izatea aski. Aldi berean, bere onera etor dadin beharrezkoak dituen bitartekoak eta baliabideak presoari eskaini dakizkion borrokatu behar du Espetxeekiko Pastoralgintzak. Zabala da saila: medikuak, psikologoak, gizarte babesa, baimenen kudeaketa, irteera sendagarriak, askatasun baldintzatua, eskubidezko neurriak bete-raztea, eta abar.

4.3. Gizartearekin adiskidetzea

Espetxeetako arazoaren aurrean jarrera hotza eta ahazkorra hartzen du gizarteak eta, hein handian, baita eliz elkartek ere. Preso taldea ia inori ez zaio axola. Ez dira gizarte elkartasunaren talaian sartzen. Gizartea gaizkilearengandik babesten duen “gizarte segurtasunaren” iritziak eta “gaizki egin duenak ordain dezala” zuzentasun zurrunaren iritziak agindu ohi dute.

Hori guztia gaizki jokatzeko izan dituen arrazoiak aztertu gabe, eta espetxean hondamenerako eta gizartean baztertuak izateko dauden okerbideak kontuan hartu gabe.

Presondegietako arazoari begira *erruki-oinarria* bultzatu behar du gizartean Espetxeekiko Pastoralgintzak. Jakina denez, *J. Sobrino-rena*⁷ da esaera hori. Eta argitu beharrekoa da, labur bederen. Ez da erruki sentimenduak sortzea (agian, praxian zehaztu ez daitezkeenak, gainera), ez da errukizko egintzak bultzatzea (sufirimenduaren sustraiak aztertu gabe egin daitezkeenak), ezta halako edo holakoren egoera latza arintzea ere (egiturak aldatu beharraz ahaztuta). Gaizki ulertuak saihesteko, *Sobrinok* ez du, besterik gabe, errukiaz hitz egiten, “erruki-oinarriaz” baizik. Ekinbiderako irizpidea da, beraz, errukiaren bide jakinetik gure sentimenduak, jarrerak eta jokabideak hezurramitzen eta bideratzen dituen. Zehatzago, besteri bidegabeki erasandako mina norberak barneratzea da, norberarena egitea, nolabait. Besteren mina barneratze hau barne irizpide eta ekinbide eraginkor bihurtzen da mina bera erazteko. *J. Sobrinoren* arabera, hau da errukiaz erantzutea edo erruki-oinarriaz jokatzeta.

Gizartea sentiberatu eta ohartarazi behar du Espetxeekiko Pastoralgin-

tzak. Espetxeetako sistemak bidegabeki sortzen eta presoek jasaten duten sufrimenduaren berri jakin behar du gizarteak; gizartearen zati den talde horren sufrimendua bereganatu behar du gizarteak; mina desegiten saiatu behar du, espetxeetako arazoari helduz, gizarte eta politika bizitzan eztabaida sortuz eta aukera eta baldintza hobeak bilatuz. Iratzargailu izan behar du Espetxeekiko Pastoralgintzak, beste erakunde edo elkarte batzuekin batera, politikoen eta lege zigorgarrien egileen munduan aldaketa eragin dezan. Presoen garrasia gizarteratzea da Espetxeekiko Pastoralgintzaren lana, jakinik, gizarteak onartzen dituela, baita txalotzen ere, presoen alde egindako errukizko egintzak, baina “erruki-oinarriari” funtsatutako ebanjelizatze lanari muzin egingo diola askotan.

4.4. Kaltetuaren eta kaltegilearen arteko bake-ordaina

Legelari alemaniar, suitzar eta austriar talde batek 1992an burutu eta gatzelaniaz *Proyecto Alternativo sobre la Reparación* (PAR) deitzen zaiona gero eta arreta eta babes handiagoa ari da hartzen azken urteotan⁸. Era xumean esan da, kaltetuaren eta kaltegilearen arteko gatazka arautuz okerrak merezi duen zigorra erabakitzea da. Hau da, erasotuari eta erasotzaileari, bie, eragiten die delituak. Eta oker horren

⁷ Ibidem, 32.

⁸ Kus J.I. ECHANO, o.c., 141-160.

ondorioak gaindituko dituen konponbidea bilatzeko adostasuna lortzen edo bakezkoak egiten saiatzen dira biak.

Bake-ordain bide honen gero eta arrakasta handiagoak bi eragile ditu, batez ere. Batetik, zientzi gaia bezala Biktimologiaren garapenak gero eta leku eta zerikusi handiagoa ematen die kaltetuei zigorrak ezartzeko prozesuan. Jakinekua da, gaur egungo Zuzenbide Penalean, erakunde publikoak berak ezartzen ditu zuzenean zigorrak, biktimak alboan utzita. Hitz gutxitan. Kaltetuaren eta kaltegilearen arteko gatazka inorena ez balitz bezala eta denona balitz bezala geratzen da. Hau, noski, arrazoizkoa eta mesedegarria da. Mendeku joerak eta neurritz kanpoko eta nahierako zigorrak ezartzea saihesten baititu. Baina biktimak gehiegi ahazteko arriskua du, beren eskubideak aitortu gabe eta kalte-ordainak ziurtatu gabe uzteko arriskua. “Biktimen aurkikuntza” ari dela gertatzen gaur Zuzenbide Penalean diote batzuek. Bestetik, espetxeak presoak birgizarteratzeko gai egingo dituen ustea oso zalantzan dago. Espetxeak ez du gaizkilea birgizarteratzen. Hori horrela izanik, gero eta indar handiagoz onartzen da beste bide batzuk bilatu beharra, gaiztagina deabrutuko eta baztertuko ez duten eta birgizarteratzeko gai egingo duen bidearen bat.

Delitua konpontzeko eskaintzen den bidea honoko hau da. Delituak

berekin duen biren arteko gatazka, gaizkilearen eta biktimaren, bien, artean konpon dezatela. Biktimaren eskubideak aitortzen ditu gaizkileak eta egin dion kaltearen erantzukizuna onartzen eta kaltea ordaintzeko hitz ematen. Kaltetuak, bere aldetik, nahikotzat jotzen du ordaina eta konpondutzat gatazka. Horrela, gaizkileak ez ditu kaltetuarekin bakarrik onezkoak egiten, lege-bidera ere itzultzen da zama kenduz edo, gutxienez, zigorbidea eta auziaren beharra arinduz.

Bake-ordainaren bide honen abantailak ukaezinak dira. Batetik, gaizkilearen birgizarteratzea laguntzen du, bere delituaren ondorioekin buruz buru jartzen baitu, beste batzuei egindako kalteaz konturarazten laguntzen, erantzukizuna hartzera behartzen, bere delituak eragin duen gatazka konpontzeko gaitasuna aitortzen zaio eta biktimaren eta gizartearen aurrean galdu duen duintasuna berreskuratzeko aukera emango dioten egiazko baldintzak eta giroa sortzen zaizkio.

Zigorrak arintzeko edo zigorra bete beharra bertan behera uzteko sartu beharko litzateke gizartean Bake-ordain honek eskaintzen duen bidea. Ez da erraza gertatzen ari bide honen sarrera. Espainian, adin txikikoen erantzukizun penalei buruz bakarrik aipatzen da aukera hau Lege Organikoan. Eta adin txikikoen artean egin dira probarik gehienak, batez ere

Katalunian. Zuzenbide Penal orokorrean ez da Bake-ordainari buruzko inolako erabakirik hartzen. Kaltetuak eskatuta bakarrik zigortzen diren oker arin edo ez hain larrietan bakarrik ematen da kaltetua eta kaltegiea elkarrekin konpontzeko aukera.

Bide hau eta espetxetako baldintzak hobetzen dituzten beste batzuen alde agertu behar du, ezbairik gabe, Espetxeekiko Pastoralgintzak, adiskidetzearen kristau mezuari jarraituz. 1999ko irailaren 11tik 17ra Mexikon egin zen Espetxe Pastoralgintza Katolikoaren X. Mundu Biltzarreko adierazpenak hauxe esaten du 3. zenbakian: “(Ahal den guztian) elkarre batean oinarrituta begiratzen ditugu gaizkilearen eta kaltetuaren arteko zuzentasun eraberritzailea eta bakezkoak egiteko era guztiak bibliako itxaropen mezuarekin egoki eta bat datorren metodo gisa.”

Ez da teorian eskaintzen zaion euskarria bakarrik. Espetxeekiko Pastoralgintza da, seguruenik, bakezkoak egiteko jarduerak bultzatzeko gaitasunik gehien duen gizarte ekinaldietako bat. Nahiz eta oraindik lege eraginik ez izan, bakezkoak egiteko kultura sortzen eta zuzentasun eraberritzaileari bidea irekitzen lagun dezakeelako. Kaltetua eta kaltegiea elkarrengana hurbiltzeko, bien arteko harremana eta elkarriketa eragiteko eta sustatzeko, elkarren arteko konfiantza berreskuratu

tzeko edo bakezkoak egiteko esparru eta baldintza egokiak eskaintzeko, zein Espetxeekiko Pastoralgintza baino hoberik? Ez da apustu erraza, jakina. Baina hori da, nire ustez, Elizak eskaini dezakeen jarrera profetikorik ebanjelikoenetakoa espetxeetako gaur egingo sistemaren eta espetxeetako arazo mingarriaren aurrean.

II. ESPETXEEKIKO PASTORALGINTZAREN HELBURUAK

Elizbarruti bateko Espetxe Pastoralgintzaren helburu nagusienak zehazten hasiko naiz orain, batez ere, lortzeko beharrezkoenak eta larrienak direnak azpimarratuz. Kontuan izan behar baita espetxetako arazoari buruz gure elizbarruti asko nola dauden.

1. Kristau elkarreko espetxetako arazoaz sentiberatu

Gure kristau elkarrekoak ez daude behar bezala informatuak eta ez dira jabetzen presondegiatako arazoaz. Gure parrokiatako elkarrekoak ere gizarte-ko iritzi berbera da nagusi, ia beti: gogor jipoitu behar da gaiztakeria eta herritarren segurtasuna bermatzeko biderik egokiena gaizkileak gogor zigortzea da. Presoen mundua kristauak ere zokoratzen duten mundua da.

Horregatik, zereginik premiazkoena, seguru aski, elizbarrutiari eta parrokiei presoen arazoaz konturatzen

laguntzea da. Ez da aski gure otoitzean, orokorki, noizean behin, presoak gogoratzea. Ez da nahikoa preso jakin bati, berari bakarrik eta tarteka, laguntzea. Beharrezkoa da presoan egoeraz eta kristauek duten zereginaz elizbarrutiak eta parrokiak jabetzea. Espetxetako kapilauak 1983an egin zuten Estatuko Biltzarrean hauxe zioten: beharrezkoa da “presondegiatako arazoan konponbidean kristau elkarteak eta, oro har, gizartea ohartaraztea.”

Lana eskatzen du honek. Zaila, gainera, oraindik jende gutxi baitugu horretaz jabetua eta trebatua. Baina ezinbestekoa da. Eta ezin da lan horretatik ez gotzainik, ez Bikario Nagusirik eta Seminariorik libratu. Baina lan hori, batez ere, eliz bailaretan eta parrokiatan eraman behar da aurrera.

Parrokian bertan lortu behar da dotrina-irakasleek eta haurren, gazteen eta helduen fede hezitzaileek ezagutzea behar bezala arazoa. Parrokiako katekesian ez dadila gai hori saihestu, baztertuekiko eta, batez ere, presoekiko elkartasunari eta laguntzari buruz kristau fedeak dituen eskakizunak gogorazi daitezela baizik.

Orobat, ezinbestekoa da sentiberatasun hau parrokiatiko liturgiara, apai-zen hitzaldietara, batzarreko otoitzera eramatea. Hau da, beharrezkoa da fedearen alderdi sozial eta laguntzaile hori liturgian bizitzea, gure gizartean

dauden arazoak eta bazterketak eta, horien artean, presoan egoera gogoraziz.

Giltzapean dauden gazte asko drogari lotuak daudela kontuan izanik, gazteen pastorgintzaren arduradunek eta begiraleek, garai honetan, arazo horretaz gazteak ohartarazteak izan dezakeen garrantzia azpimarra dezakegu. Garrantzitsua izan baitaiteke arazoa behar bezala aztertzeke eta Sendotzako Sakramentua hartu duten talde helduei preso gazteekiko lan hori aurkezteke.

Espetxeetako egoeraz kristau elkarteak behar bezala jakinaren gainean jartzen eta jabearazten elizbarrutiek lan gutxi egin ote dugun iruditzen zaigu. Presoan egoera, presoan bizi baldintzak eta arazoak ezagutarazteko eta kristau elkarteak nola lagun diezaiekeen argitzeko ez dugu Elizbarrutietako bailaretan topaketarik, mahai-ingururik, hitzaldirik, kapilauaren edo pastorgintzako beste eragileen jardunik ia antolatzen.

Kristau elkartearen sentiberatasun honek eragin handia izan dezake gizarte osoan. Beharrezkoa baita gizartea arazo horretaz jabetzea, espetxeetan gizatasun handiagoa lortzeko, gizarteak parte handiagoa har dezan presoekiko egoeran eta berorientzat bide hobeen bila babes zabalagoa eta eraginkorragoa eskaintzeko.

2. Espetxe pastoralgintzako eragileak sustatu eta trebatu

Elizbarruti batean espetxeren bat eta presoen kopuru handi xamarra daudenean, ez da aski arazo honi, orokorrean, Caritasen bidez bakarrik erantzutea. Horretara bereziki emanak dauden kristauen laguntza behar da. Eta, jakina, egin beharreko lehenengo urratsetakoa arlo horretan buru-belarri sartutako taldeak sortzea eta sendotzea da.

Kristauei pastoralgintza horretara deitu diegunean hala moduz jokatu izan dugu elizbarrutietan, gehienetan. Deialdi landuagoa egiten ikasi behar dugu, zer egin daitekeen hobeto zehaztuz, elizbarrutiko eta parrokiatako pastoralgintza osoan presoekiko ardurak duen zentzua eta erantzukizuna argituz, sinestunei arlo horretan pastoralgintzarako benetako gogoia sortzen lagunduz.

Non aurki ditzakegu kristau hauek? Beharbada, baztertu mota hauetarako sentiberatasun joera handiagoa izan dezaketen Caritaseko laguntzaileetan; helduen arteko gogoeta talde edo kristau elkarte txikietan; Sendotzako Sakramentua erantzukizunez hartu eta taldean jarraitzen duten eta gizarte gizakoiagoa egiten lan egin nahi duten gazteen artean; lanetik sasoian erretiratutako kristauen artean; premia zer den ongi badakiten eta are eta behartsuagoak direnei laguntzeko

prest dauden langabeen artean. Mese-degarri litzateke kristau diren abokatu, gizarte laguntzaile, psikologo eta abar horretara eragitea ere. Bestetik, on litzateke kristau den preso ohi edo kartzelariaren baten laguntza eta elkarlana izatea.

Jakina, eremu honetan itxura antzean eta kristau gogoz lan egiteko beharrezkoa da trebakuntza. Ez dira aski borondate ona eta eskuzabaltasuna. Katekesian eta fede hezkuntzan lan egiteko prestakuntza egokia behar dela, baina laguntza zerbitzuetan borondate ona nahikoa dela pentsatzea oker handia da. Egia da, espetxetako eskarmentuz, presoekin eta beren etxekoeekin izandako harremanekin, kapilauek eta egunero presoekin dabiltzanen argibideekin lortzen da lan honetan egiazko trebakuntza. Baina lanean lortzen den prestakuntza bakarrik ez da aski.

Lehenik, beharrezkoa da arlo horretan pastoralgintzan dihardutenak fedearen eskakizun sozial eta laguntzaileaz argi eta garbi jabetzea eta gizartean Elizak duen egitekoa eta behartsuekiko eta baztertuekiko jarrera zein diren jakitea. Ezinbestekoa da hezkuntza hori, jarduera bakarkakoa, gutxi gorabeherakoa, norbere interesek bakarrik eragina izan ez dadin, elizbarrutiko pastoralgintzaren orientabideek eta espirituak eragindako Elizaren jarduera baizik.

Bigarrenik, garrantzitsua da alor jakin honetan ezagutza bereziagoa lortzen joatea: espetxeak nolakoak diren eta nola antolatua dauden; gaizkilearen zigorrean jarraitzen den bidea; preso ororen eskubideak; zigor-legeria eta espetxeko bizimodua eta abar.

Hirugarrenik, beharrezkoa da presoarengana hurbiltzen ikastea eta begirunez eta gertutik bere egoera ulertzea. Ezaupide hori ez da norbere bizipenetik bakarrik lortzen. Garrantzitsua da gogoeta, elkarrekin ikertzea, eskarmentuak elkarrekin trukitzea, espetxe barruan presoekin dabiltzanei entzutea.

3. Presoari zerbitzu askatzailea eta bere eskubideen babesa

Ez dezagun ahaztu Espetxe Pastoralgintza guztiaren helburu nagusia presoari berari laguntzea dela. Egiten eta antolatzen dugun guztiaren ikuspuntu pertsona horiek egon behar dutela esan nahi du horrek. Eta gure ahalegin eta lan guztiak berorien ona bilatzeko egin behar ditugula, azken batean.

Laguntza hau ez da kapilauaren, gizarte laguntzaileen eta abarren kontua bakarrik. Horien zeregina ezinbestekoa da, jakina, espetxe barruan. Baina zeregin hori ez daiteke beren gain bakarrik utzi, Espetxe Pastoralgintza osoak lagundua behar du izan era askotako bitartekoz eta bidez. Aipa ditza-gun zeregin jakin batzuk:

Presoen eskubideak babestu

Epaiaren arabera, zigortuak gutxi-asko galdu egiten du bere askatasuna eta beste herritarrek dituzten eskubide batzuen erabilera mugatua dauka. Baina horrek ez du inolako eskubiderik gabe gelditzen denik esan nahi. Alderantziz, presoari ezin zaizkio eskubide batzuk kendu bidegabeki jokatuz ez bada. Esate baterako, abokatua; epai zuzena eta bere askatasun berreskuratzeko Legearen araberrako helegite guztiak egiteko eskubidea; bere bizitzarako eta osasunerako, komunikaziorako, osasun laguntzarako, erlijio zerbitzuetarako eta abarretako eskubidea.

Jakina, ondo zehaztu behar dira pastorgintzaren nolakotasuna eta modua. Ez dadila arrazoi politikoek eta ideologikoek eragina izan, ebanjelioko espirituak eragindako ahulenen aldeko-tasunak eta zuzentasunak baizik. Era guztietako bereizkeriak baztertu behar ditu eta abokatuen eta gainerako profesionalen eskumenak errespetatu, berorien arloan eskua bidegabeki sartu gabe.

Baztertua izatetik atera

Esanda bezala, presoak galdua du askatasuna gutxi-asko, baina horrek ez du bakardadera eta bazterketara gaitzetsia izan behar duenik esan nahi. Zalantzarik gabe, presoaren sufrimendurik larrietakoa bakardadea, utzia,

ahaztua eta baztertua den sentimendua da, batez ere, bere etxeoak, lagunak edo ezagunak ahazten badute.

Presoa, ahal den neurrian, gizarteak baztertua izatetik libratzea da Espetxe Pastoralgintzaren helbururik argienetakoa. Presoak jakin dezala beraz arduratzen, bere arazoez kezkatzen eta laguntzeko prest den norbait badela. Jakin dezala ez dagoela bakarrik.

Presoekiko harremana eta hurbiltasuna bultzatu behar dituela Espetxe Pastoralgintzak esan nahi du horrek. Etxekoek, lagunak eta abarrek beroriekin harremana izan dezatela ahalegindu behar du. Adiskidetasunagatik, auzokoa izateagatik, lanbide edo lan berdinean jarduteagatik lotura berezia izan zutenek, bisitak eginaz eta gutunak idatziz, presoekin mota guztietako harremanak izan ditzaten bultzatu behar du. Edo baita kristau elkartetakoek beroriekin hasi duten harreman adiskidetsua ere.

Begirunezko tratua zaindu behar da, ezbairik gabe, esku egokiz eta kontu handiz jokatzuz, espetxeko kapilauaren eta gizarte laguntzaileen laguntzaz. Batez ere, inoren bisitarik ez dutenak edo laguntza bereziaren beharrean direnak kontuan izanaz.

Norbere askapena

Presoa, beste edozein bezala, ez da kanpoko giroak bere bizialdia baldin-

tzatu dion azpiratua bakarrik. Bere joeren, jokabide okerren, bere hutsegiteen, morroi era bada. Gizon edo emakume horrek bere burua sakonago eta egiazkiago ezagutu eta bere burua hondatu eta gutxietsi gabe bere bekatua aurki dezan eta bere burua eraberritzeko eta bizitzaren zentzua berreskuratzeko bideari ekin diezaion, nola lagundu arduratu behar du Espetxe Pastoralgintzak.

Jakina, kapilauak eta presoekin harreman zuzena dutenek utziezinezko zeregina dute hemen. Baina nola lagun diezaiokegu kapilauari bere lanean, nola lagundu presoak berrezteko ekinaldian, elkarrekin lagunago izateko, elkarbizitzarako eta elkartasunerako joera nola suspertu, espetxe barruko harremanak nola hobetu, fede ospakizuna nola hobetu, galde dezakegu.

4. Espetxean bertan ebanjelizatze lana

Espetxe barruan bermatu behar du elizbarrutiak ebanjelizatze lana. Ez kapilauaren edo talde baten bidez bakarrik. Elizak berak egon behar du askatasun murriztaren ondorioak jasaten dituzten presoan ondoan.

Espetxetako zerbitzari eta ebanjelizatze lanak alderdi asko ditu: Berri Ona entzuten dutenen fedea jantzi eta zaintzea; erlijio laguntza eta liturgi ospakizuna; giro gizakoiagoa eta pre-

soen giza heldutasunerako aukera handiagoak sortzen lagunduko dituzten kultur, hezkuntza eta jolas ekinaldietan parte hartzea; presoen artean elkarbizitza hobea sustatzea.

Jakina, Elizaren presentzia funtsean kapilauak bermatzen du espetxean, ebanjelizatze zerbitzuan elizbarrutiaren izenean ari baita apaiz bezala. Baina bere lana ez daiteke bakarkakoa izan, beste kristau batzuek ere lagundu behar diote, era batera eta bestera, espetxeko kristau zerbitzu horretan. Ezinbestekoa da zeregin horri lotutako talde bat, parroketatik laguntza egokia izango duena. Elizaren ebanjelizatzeaz espetxean arduratuko den eta ebanjelizatze hori bultzatuko eta bermatuko duen talde bat, alegia. Kapilaua izango da talde horren koordinatzaile eta animatzaile.

5. Presoaren etxekoei lagundu

Familia izan daiteke presoaren itxaropenari eusteko eragilerik onena. Baina presoaren hondamen eta etsipen iturri ere gerta daiteke. Bestetik, etxeko norbaitek egindako gaiztakeriaren ondorioak jasaten ditu familiak askotan, inolako errurik gabe. Aita, senarra, semea edo alaba espetxean izatea zama astuna da eta psikologiaren, ekonomiaren eta moralaren aldetik sufri-
mentu handia. Egoera latzean bizi diren familiak dira eta laguntza behar izaten dute, askotan, etxeko horren

espetxeratzea eta horren ondorioak eramaten ikasteko.

Caritaseko zerbitzuetatik eskaini diezaiekeen hurbiltasuna eta elkartasuna ez dirudi nahikoak direnik. Laguntza bereziagoa behar dute, Espetxe Pastoralgintzari berari dagokiona. Parrokiak ez baitu familia horien ondoan ekonomi arazoak konpontzeko bakarrik egon behar, baita bere maitearekiko loturari eusten, berarekiko harremana hobetzen, familian sortutako arazoari heltzen laguntzeko ere.

6. Espetxetik ateratakoan, laguntza

Presoarekiko ardura ez da espetxe barruan amaitzen. Gizartera itzultzera-koan, norbait izan behar luke zain, arduratuko den eta laguntza eta babesa emateko prest dagoen norbait. Zer egin daiteke?

Espetxetik askatasun baldintzatuz, asteburuko baimenaz edo betiko ateratzen denaz arduratuko den talderik izan al daiteke? Esate baterako: preso gaztearekin barruan harremanen bat izan eta gero gizarteratzerakoan lagunduko duten gazteak.

Nora joanik ez duten presoentzat antolatu al daiteke laguntzaren bat? Laguntza, harrera, gizarteratzeko argibideak, eskainiko dizkien lekuren

bat? Gizaberritzeko egitasmoren bat espetxetik drogaren menpe ateratzen diren gazte horientzat? Ez da lantegi erraza, baina erronka horri ezin diezaioke uko egin Espetxe Pastoralgintzak.

III. AZKEN OHARRA

Hitzaldi hau 1999ko azarokoa da. Hamabi urte igaro dira eta espetxeen arazoari oraindik ez diote behar bezala heldu ez gizarteak ez Elizak. Ez da lortu egungo gizartean delinkuentearekin nola jokatu erabakitzeko behar den eztabaida nagusia piztea eta bultzatzea.

Ardura handiagoz begiratzen zaio kartzela berrien segurtasunari espetxera zigortutako pertsonen birgizarteratzeari baino. Nahiz eta zenbait urrats onuragarri egin den preso batzuei laguntzeari dagokionez eta sorospen psikologiko espezializatuaz, espetxe-antolakuntza gaur gaurkoz ez dago eraginkorrago egituratuta presoak bere onera ekartzeko. Bestetik, badira arazoak gizartearen eta Elizaren arreta askoz handiagoa eskatzen dutenak, besteak beste, presoek zigorrek beren sendietan eragiten dituzten arazoak edo espetxetik ateratakoan, pertsona horiei laguntzea kartzela aldiaren ondoren.